

**GERNIKA-LUMOKO IRAKASKUNTZA ZENTROEK GARATZEN
DITUZTEN EUSKARAREN NORMALKUNTZA PLANETARAKO
DIRU LAGUNTZA DEIALDIA.**

2014-2015 IKASTURTEKO ARAUDIA



I. ATALA - OINARRIZKO ARAUAK

1).- Honako diru laguntza deialdia Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko urriaren 8an hartutako ebatziaren arabera egiten da, ebatziari **erantsitako araudiari** eta Gernika-Lumoko Udalbatzak 2012ko azaroaren 28an izandako ohiko bilkuran onartu zuen “Diru laguntzen Ordenantza”-ri jarraiki. Araudi honetan finkatzen ez denerako, aipatu **Ordenantzara joko da** (onuradunen betebeharrak, emateko prozeduraren berezitasun administratiboak, diru laguntzak itzultzea, arau-haustea eta zigorrak).

2).- Tokiko Gobernu Batzarraren aipatu ebatzia Udaletxeko **iragarki taulan** argitaratuko da eta udalerri mailako Eskola Kontseiluan parte hartzen duten irakaskuntza **zentro guztiei**, publikoei eta kontzertatuei, jakinaraziko zaie modu zehatzean.

3).- Deialdiaren berri jaso eta **hilabeteko epean** aurkeztu beharko dute onuradunek bidezko eskabidea, zehaztuko diren agiriekin batera.

4).- Hala denean, eskabideak berregiteko aukera izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 27. artikulua arabera.

5).- Diru laguntza hauek, udal aurrekontuko **5-4515-43000 partidaren bizkar** joango dira eta 2014 urterako 14.000 euro burutuko dira guztira.

6).- Diru laguntza emateko **instrukzioa Euskara Zerbitzuaren ardura** izango da; honek bidezko txostena egin ondoren, Hezkuntza zinegotziaren proposamena igorriko zaio **Tokiko Gobernu Batzarrari, ebazpena** har dezan.

7).- Ebazpena hartu eta handik eta zazpi egun barru, Tokiko Gobernu Batzarraren **akta iragarriko da udaletxeko iragarki taulan**.

8).- Ebazpena hartu eta 10 eguneko epean, gehien jota, **eskatzaileari jakinarazpen pertsonala** bidaliko zaio lege finkaturiko moduan, berak eskaera orrian aipatutako helbidera. Jakinarazpen horretan, ebazpenaren aurkako errekursoen berri emango zaio.



9).- Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo horiek ez badute araudi honetan eskatutako agirietako bat, eskaera egingo zaio eskatzaileari **hamar (10) lanegunetako epean hutsunea zuzentzeko** edo beharrezko dokumentuak aurkezteko. Horrela egin ezean, bi ondorio izan daitezke:

- Eskatzaileak deialdiari uko egiten diola ulertzea, falta diren agiriak orokorrak balira (laugarren arau bereziko 1. eta 2. agiriak).
- Eskatzaileak eskaera egiterakoan planteatutako egitasmoei buruzko agiriak faltako balira (laugarren arauko 3. agiria), egitasmo zehatz horiek kanpo geratuko lirateke.

10).- Diru laguntzak jasoko dituzten irakaskuntza zentroek konpromisoa hartzen dute 2014-2015 ikasturtean **garatzekoari buruzko Txostena 2.015 urteko uztailaren baterako aurkezteko**, jasotako diru laguntzaren erabilera ziur dezaten **zurigarriak** ere txosten horretan barne. Honako puntu hau bete ezean, jasotako diru laguntzak itzuli beharra izan daiteke eta doloa, errua edota negligentzi bakuna bitarteko balitz administraziobideko hauspena litzateke.



II. ATALA.- ARAU BEREZIAK

Lehen.- Honako araudiarekin, irakaskuntza zentroetako “Euskararen normalizaziorako Plangintzak” garatzearen burutu nahi diren egitasmoetarako diru laguntzak ematea arautzen da.

Bigarren.- Gernika-Lumoko Udalak onartua daukan Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoan oinarrituta, hurrengo ekintza hauekin loturiko egitasmoetarako lehenetsiko dira diru laguntzak:

ERABATEKO LEHENTASUNA

1).- Familia transmisioan eragiteko egitasmoak:

- Guraso euskaldunak euskararen transmisioan inplikatzeko estrategiak landu.
- Guraso erdaldunengan eragin, euskararen aldeko jarrerak lantzeko.
- Etxeko lanak euskaraz egiten laguntzeko dinamikak landu gurasoekin.
- Gurasoen arteko harreman guneetan euskararen aldeko hautua egiteko giroa landu.

ERABATEKO LEHENTASUNA

2).- Irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak:

- Idazleak ikastetxera programa.
- Eskolako aldizkaria argitaratzea.
- Liburutegia hornitzea.
- Beste batzuk.....

ERABATEKO LEHENTASUNA

3).- Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak garatzeko ekintza orokorrak:

- **Atsedendietan** (eskola barruan) aisiaren bitartez euskararen erabilpena areagotzeko egitasmoak.
- **Kirola euskaraz** (kirol monitoreak alfabetatzeko /euskalduntzeko egitasmoak, kirol materiala euskaraz prestatu edota jasotzeko programak,...).
- **Euskararen erabilpena areagotzeko eskolaz kanpoko ekintza zehatzak...** (Hezkuntza sailak laguntzen dituenetatik kanpo).

LEHENTASUNA ALTUA

4).- Euskara zine aretoetara programan parte hartzea (Tinko Elkartea eta Irudi Biziak erakundearen bitartez, edo zentro bakoitzak bere baliabideekin molda dezakeena, Udal Eskola Kontseiluaren azken batzarreko ebatzia oinarri).



LEHENTASUNA ALTUA

5).- Etorkinen seme-alabei eta euren senitartekoei zuzendutako programa bereziak.

LEHENTASUNA ALTUA

6).- Eskola barruko eta kanpoko komunikazioan euskararen erabilera areagotzearen hizkuntza irizpideak lantzeko ekintzak:

- Inprimakietan, bilera-aktetan, zirkularretan,... euskarazkoaren diskriminazio positiboa, hiztegitxoak eranstea.
- Gurasoen eta zentroaren arteko komunikazio-zirkuloan ahozko erabilera areagotzeko jarrerak lantzea (batzarretan, jaialdietako aurkezpenetan, irteeretan, ...).

Hirugarrena.- Diru laguntza hauetarako eskubidea izateko, ezinbestekoa izango da Zentroko Erabilera Plana onartuta izatea eta eskaera aurkeztu beharko da Gernika-Lumoko Udaletxeko Erregistroan, diru laguntzetarako deialdiaren jakinerazpena jaso eta biharamunetik hasita **hilabeteko epean**. Diru laguntzak egitasmo bakoitzeko emango dira eta zentro batek egitasmo desberdinak aurkez ditzake.

Deialditik kanpo geratuko dira hurrengo jarduerak:

- NOLEGA programan txertaturik daudenak.
- Gernika-Lumoko Udaleko Hezkuntza Sailak eskolaz-kanpoko ekintzetarako ematen dituen diru laguntza deialdian aintzat harturiko jarduerak.

Laugarrena.- Aurkeztu beharreko datuak/agiriak:

1).- Eskaera agiria, Normalizazio Planaren Arduradunaren datuekin.

2).- Normalkuntza Plana onartu zeneko aitorpena eta 2014-2015 ikasturteko Ekintza Plana.

3).- Egitasmo bakoitzeko fitxa (**I. ERANSKINA**), hurrengo datuak zehaztuz:

- Bigarren arau bereziko sei ataletatik zeinetan kokatzen den.
- Burutuko den egitasmo bakoitzaren eraginpean izango direnak eta kopurua (irakasleak, ikasleak, gainerako langileak, gurasoak).



- Erabiliko diren giza-baliabideak.
- Egitasmoaren aurrekontua (gastuak eta diru-sarrerak).
- Egitasmo edo ekintzaren kronograma.

Bosgarrena.- Diru laguntza deialdirako 2014ko aurrekontuan **14.000 €ko partida bat** dagoela kontuan hartuta, hurrengo irizpide hauek finkatu dira banaketarako:

- a).- 700 €, gutxienekoa, bakoitzari ($700 \times 7 = 4.900$ €)
- b).- 6.100 € ikasle kopuruaren arabera banatzekoa.
- c).- Gainerakoa (3.000 €), egitasmoen balorazioaren arabera banatzekoa (zazpigarren arauari jarraiki).

Seigarrena.- Zentro bakoitzak aurkeztutako egitasmo guztien aurrekontuaren batuketa ez da izango 2.000 €koa baino gutxiagokoa, ez eta 6.000 € baino gehiagokoa. Beraz, zentro bakoitzak aurkeztuko dituen egitasmoen balorazioa egin eta gehieneko 6.000 €ko kopurua gaindituko balitz, kopuru horretara egokituko dira egitasmoen aurrekontuak.

Zazpigarrena.- Diru laguntzetarako eskabideak ebazteko proposamena egiteko eta diru laguntzen zenbatekoa ezartzeko, Kultura eta Euskara Arloko Batzordeak kontuan izango ditu jarraiko **irizpideak**, ESEPeK ontzat emandako jarduera mota eta lehentasunak kontuan hartuta (neurketa 100 puntukoa izango da gehienez jota egitasmo bakoitzeko):

- Erabateko lehentasuna duen ekintza eta zentroan inplikaturiko giza-talde guztiei zuzendua: 100 puntu.
- Erabateko lehentasuna duen ekintza eta zentroan inplikaturiko giza-talde berezi bati zuzendua: 80 puntu.
- Lehentasun altua duen ekintza eta zentroan inplikaturiko giza-talde guztiei zuzendu: 60 puntu
- Lehentasun altua duen ekintza eta zentroan inplikaturiko giza-talde berezi bati zuzendua: 40 puntu.



Zortzigarrena.- Diru laguntzak helburu duten jardueretan **euskararen erabilpena dela-eta**, Euskararen Erabilpenerako Udal Ordenantzaren 24. Artikuluak ezarriari jarraiki jokatu beharko da:

“1.- Kultur, kirol eta aisi elkarteei subentzioak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontutan hartuko da. Ondorioz, Gernika-Lumoko Udalarengandik diru laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoak nahi entitate juridikoek, beren jardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta ezagutzera eman beharko duten propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgoragailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskarazkoari adierazpenez jabetu litezkeenak elebidunak baitira.

Subentzioak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da hori guztia, subentzio hartzaileak, subentzioa jaso ahal izateko, derrigorrez bete beharko duelarik.

2.- Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipaturiko baldintzak bete beharko dira, horrez gain instalazio barnean jarritako publizitatea ere euskaraz azaldurik. Udalak, beraz, zernahi udal instalazio eta materiala erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntz baldintza horren berri emango die interesatuei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenetariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere.”



I. ERANSKINA

ESKOLETAKO NORMALKUNTZA PLANETARAKO DIRU LAGUNTXAK EGITASMO BAKOITZEKO FITXA

EKINTZA/EGITASMOA: _____

Araudiaren bigarren klausulako sei ataletatik zeinetan/zeintzuetan kokatzen den:

- 1).- Familia transmisioa ☐
- 2).- Irakurzaletasuna ☐
- 3).- Normalkuntza planak garatzeko ekintza orokorrak ☐
- 4).- "Euskara zine aretoetara" programa ☐
- 5).- Etorkinen seme-alabei eta euren senitartekoei doazkienak ☐
- 6).- Eskola barruko eta kanpoko komunikazioa euskaraz ☐

Eraginpeko agenteak zehaztea (irakasleak, ikasleak, gainerako langileak, gurasoak).

- Agente guztiak ☐
- Irakasleak ☐
- Langileak ☐
- Ikasleak ☐
- Gurasoak ☐

Erabiliko diren giza eta material baliabideak

- Arduraduna: _____

-
-
-
-
-
-



-
-
-

Egitasmoaren aurrekontua (gastuak eta diru-sarrerak)

Gastuak:

-
-
-
-

Gastuak Guztira _____

Diru sarrerak (autofinantzazioa):

-
-
-
-

Sarrerak guztira _____

Defizita: _____

Egitasmo edo ekintzaren kronograma (noiz hasi, noiz garatu eta noiz bukatu)

